



Esp. kodea: 2018PHES0003  
Titularra: PERTSONAL SAILA

Gaia: Udala: 2018ko Enplegua Sustatzeko Programa  
Hasiera data: 2018/07/10

## ERANSKINA

### UDALAREN 2018KO ENPLEGUA ZUZENEAN SUSTATZEKO PROGRAMA

### Langabezia dauden 4 pertsona, aldi baterako, kontratatze deialdia

#### HAUTAKETA PROZESUEN JARRAIPIDEAK

##### ✓ Programaren xedea

Arrasateko Udalak, 2018ko uztailaren 5ean eta 12an hartutako udal akordioen arabera, Enplegua zuzenean sustatzeko programaren baitan 4 **lan-kontratu** egingo ditu, aldi baterakoak, **udalerrian bizi diren langabeentzat**, ondoren azaltzen den prozesuaren arabera:

##### ✓ Kontratatuko diren lanpostuak

Hemen aipatzen ditugun **lanpostuak** betetzeko dira kontratu horiek:

LANPOSTUAK	PROIEKTUA	JARD.	IRAUP.
Teknikari laguntzailea (Zerbitzuen gutuna)	Zerbitzu gutunak argitaratzea	% 50	12 hil.
Igeltseroa	Herriko espaloien hobekuntza ekintzak	% 100	5 hil.
Peoia (igeltserotza)	Herriko espaloien hobekuntza ekintzak	% 100	5 hil.
Pintorea	Hiri altzari-seinalazioa eta udal eraikinen bat margotzea.	% 100	5 hil.

##### ✓ Kontratatze baldintza orokorrak

Hautagaiek baldintza hauek bete beharko dituzte bai eskaera egiteko unean bai kontratua egiterakoan:

- Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzailer moduan izena emanda dauden pertsona langabea izatea.
- Deialdia egin eta sei hilabete lehenagoz Arrasaten erroldaturik egon beharko dira. Arrasaten erroldatutako izengai egokirik lortzen ez bada, deialdi berri bat egingo da eta baldintza izango da Debagoienean erroldaturik egotea, lehenasuna eemango zaielarik Arrasaten erroldatutakoei.

Kasu honetan, probak bukatutakoan, zerrenda bi egingo dira, puntuazio ordenan, probak gainditu dituzten hautagaiekin:

- Gai diren hautagaien zerrenda, Arrasaten erroldatuak.
- Gai diren hautagaien zerrenda, Debagoienean beste udalerrri batzuetan erroldatuak.

Epaimahaiak egingo du, lehenik eta behin, kontratazio proposamen bat lehen zerrendako hautagaien alde (Arrasate), puntuazio ordenaren arabera (merezimenduak+probak).



**Esp. kodea:** 2018PHES0003  
**Titularra:** PERTSONAL SAILA

**Gaia:** Udala: 2018ko Enplegua Sustatzeko Programa  
**Hasiera data:** 2018/07/10

Ez badago gai den hautagairik zerrenda horretan, kontratazio proposamen bat egingo du 2. zerrendako hautagaien alde (Debagoiena), puntuazio ordenaren arabera (merezimenduak+probak).”

c) Kontrratatu gabea izatea, aurreko 3 urtetan, enplegu sustapen programetan: 15 puntu.

*Beste langile baten uko egitearen ondorioz kontratatua izanez gero, eta kontratu bonen iraupena 3 hilabete baino gutxiagokoa izan bada, kontratatu gabea bezala hartuko da kontutan, hau da, 15 puntu izango ditu.*

d) Partaideak idatzizko adierazpena aurkezten badu, gutxienez programaren epealdi erdia beteko duela adiereraziz: 5 puntu.

e) Berdinketa kasuan aurreko 3 urteetako Enplegu Sustapen Programetan uko egin ez duen hautagaiak izango du lehentasuna.

#### ✓ Lanpostu bakoitzerako baldintza espezifikoak

Kontratu bakoitzak, lanpostuaren ezaugarrien arabera, titulazio, euskara jakitea, eta abar moduko baldintza jakin batzuk ditu ezarrita; eranskinean jasotakoaren arabera.

#### ✓ Eskabideak (LANBIDEtik) egiteko modua eta epea

Hautaketa prozesuetan parte hartzeko interesa duten pertsonak izena eman behar dute LANBIDEn (bulego kolaboratzaileetan edo web orrian), LANBIDEn web orrian, udal webgunean eta gainontzeko euskarri informatiboetan iragarriko diren epeetan.

Aukera egiten duen lanpostu bakoitzeko inskripzio edo izen emate bat egin beharra dago.

#### ✓ Hautagaien aurretiko aukeraketa

LANBIDEk egingo du hautagaien aurretiko aukeraketa, ezarritako baldintzen arabera.

#### ✓ Hautagaien azken aukeraketa

Hautagaien azken aukeraketa Udalak egingo du, egokitasun probak eginez eta hautagaiek egiaztatutako meritua baloratuz, eranskinean jasotakoaren arabera.

#### ✓ Epaimahaia.

Hautaketa prozesuko kalifikazio epaimahaia honela eratuko da:

- **Epaimahaiburua:**
  - Udal teknikari bat.
- **Epaimahaikideak:**
  - Postuari dagokion arloko teknikari bat.
  - Postuari dagokion arloko karrerako funtzionario bat.
  - Udal funtzionario bat, ordezkaritza sindikalak proposatuta.



**Esp. kodea:** 2018PHES0003  
**Titularra:** PERTSONAL SAILA

**Gaia:** Udala: 2018ko Enplegua Sustatzeko Programa  
**Hasiera data:** 2018/07/10

- **Idazkaria:**
  - Pertsonal saileko administrari bat.

✓ **Informazioa eta kontsultak**

Deialdi honi buruz Udalak hartzen dituen erabakiak (oharrak, aurrez aukeratutako hautagaien zerrenda, azterketak edo elkarrizketak egiteko deialdiak, hautaketa proben emaitzak, eta abar) udaleko web orrian argitaratuko ditu ([www.arrasate.eus](http://www.arrasate.eus)) eta interesdunen eskura jarriko ditu BAZen, Biztanleentzako Arreta Zerbitzuan.

Deialdi honi buruz interesdunek behar duten edozein informazio osagarri jasotzeko, hona jo dezakete:

– **BAZ (Biztanleentzako Arreta Zerbitzua)**

Arano eta Garcia maisu-maistrak kalea 8  
Tel.: 943 252000  
[baz@arrasate.eus](mailto:baz@arrasate.eus)

✓ **Bete beharreko baldintza bereziak eta egin beharreko probak:**

➤ **TEKNIKARI LAGUNTZAILEA (ZERBITZUEN GUTUNA)**

- **Baldintza bereziak:**
  - Titulua: diplomatura, lizentziatura edo gradua
  - Euskara: 3 HE egiaztatzea (agiriz).
- **Merituak:**
  - Euskara 4 HE egiaztatzea (agiriz): 10 puntu
  - Emakumea izatea: 5 puntu.
  - Legezko ezintasun izaera edukitzea, ehuneko 33koa edo hortik gorako elbarritasun maila batekin, eta bateragarria izatea dagozkion zeregin eta egitekoak betetzearekin: 5 puntu.
- **Probak:**
  - *Praktikoa:* 0-35 puntura baloratuko da eta gutxienez 17,5 atera behar da aurrera egiteko.
  - *Elkarrizketa:* : 0tik 15 puntu arteko balorazioa izango du, eta gutxienez 7,5 puntu lortu behar dira .



Esp. kodea: 2018PHES0003  
Titularra: PERTSONAL SAILA

Gaia: Udala: 2018ko Enplegua Sustatzeko Programa  
Hasiera data: 2018/07/10

### ➤ IGELTSEROA

- **Baldintza bereziak:**
  - B gida baimena.
  - Urtebeteko lan-eskarmentua.
- **Merituak:**
  - Euskara: 1 HE egiaztatzea (agiriz edo dagokion proba eginez): 10 puntu.
  - Emakumea izatea: 10 puntu
  - Legezko ezintasun izaera edukitzea, ehuneko 33koa edo hortik gorako elbarritasun maila batekin, eta bateragarria izatea dagozkion zeregin eta egitekoak betetzearekin: 5 puntu.
- **Probak:**
  - *Ahozko proba:* lanpostuaren funtzioekin lotutako oinarrizko galderak. 0-10 puntura baloratuko da eta gutxienez 5 puntu atera behar da aurrera egiteko.
  - *Praktikoa:* 0-40 puntura baloratuko da eta gutxienez 20 atera behar da aurrera egiteko.

### ➤ PEOIA – IGELTSEROTZA

- **Baldintza bereziak:**
  - B gida baimena.
  - Urtebeteko lan-eskarmentua, edo ikasketak edo praktikaldiak igeltserotzako peoi lanetan.
- **Merituak:**
  - Euskara: 1 HE egiaztatzea (agiriz edo dagokion proba eginez).
  - Emakumea izatea: 10 puntu.
  - Legezko ezintasun izaera edukitzea, ehuneko 33koa edo hortik gorako elbarritasun maila batekin, eta bateragarria izatea dagozkion zeregin eta egitekoak betetzearekin: 5 puntu.
- **Probak:**
  - *Ahozko proba:* lanpostuaren funtzioekin lotutako oinarrizko galderak. 0-10 puntura baloratuko da eta gutxienez 5 puntu atera behar da aurrera egiteko.
  - *Praktikoa:* 0-40 puntura baloratuko da eta gutxienez 20 atera behar da aurrera egiteko.



**Esp. kodea:** 2018PHES0003  
**Titularra:** PERTSONAL SAILA

**Gaia:** Udala: 2018ko Enplegua Sustatzeko Programa  
**Hasiera data:** 2018/07/10

➤ **PINTOREA (OZMA)**

▪ **Baldintza bereziak:**

- B gida baimena.
- Urtebeteko lan-eskarmentua.

▪ **Merituak:**

- Euskara: 1 HE egiaztatzea (agiriz edo dagokion proba eginez): 10 puntu.
- Emakumea izatea: 10 puntu.
- Legezko ezintasun izaera edukitzea, ehuneko 33koa edo hortik gorako elbarritasun maila batekin, eta bateragarria izatea dagozkion zeregin eta egitekoak betetzearekin: 5 puntu.

▪ **Probak:**

- *Ahozko proba:* lanpostuaren funtzioekin lotutako oinarrizko galderak. 0-10 puntura baloratuko da eta gutxienez 5 puntu atera behar da aurrera egiteko.
- *Praktikoa:* 0-40 puntura baloratuko da eta gutxienez 20 atera behar da aurrera egiteko.